# Frits Van Dongen / De Architekten Cie.

## HIRI ARTIFIZIALA

Amsterdamgo arkitektura-bulegoa.

1. Beurstraverse, Rotterdam, 1991-1996. 30.500 m2 merkatalgune; 275 aparkaleku; 116 apartamentuko dorrea. Coolsingel errepidea lurrazpitik zeharkatzen duen merkatalgunea. Lijnbaan-en inguruak berriztatzeko plan baten zati.

2. De Landtong, Kop Van Zuid, Rotterdam. 626 etxebizitza (207 jabegoan eta 419 alokairuan), 342 aparkaleku, 1.000 m2 merkatal espazio, kirol-kluba (6 tenis-zelai) eta haurtzaindegi bat; hektarea 1, 1991-1998. Etxe-irlen patioen paisaigintza: De Koning Landschapsarchitekten BNT; erdiko "Loods 24" plazaren diseinua Atelier Quadrat.

3. Ijburg: Haveneiland (30 Ha) eta Rieteeilanden (7.062 etxebizitza), Amsterdam, 1999-2002. (sei irletan 18.000 etxebizitza 450 hektareatan, d=40 etxe/Ha). Frits Palmboom & Van den Bout estudioarekin. Hybrid 1, 23. blokea, 123 apartamentu + 88 sendibakarreko etxebizitza + 1.482 m2 bulego + 191 aparkaleku.

4. Zuidas, Amsterdam, 1998-2025 (80 Ha). Azpiegiturak lurrazpian estaltzen dira, hirigune berri bat sortuz. Funtzio anitzak: bizitegia, lantegia, merkataritza, kirola eta kultura. Etorkizuneko A.H.T.aren geltokia bertan kokatuko da. Manhattan eredua (dorrea) eta Bartzelona eredua (etxe-irla) nahasten dira, Berlageren Hegoalde-planaren kaleekin bat eginez. Zuidasek eskala metropolitarra du. Mahler 4 konplexua eraiki-fasean dago.

BIBLIOGRAFIA:


1. DE ARCHITEKTEN CIE: "Profession Architect", 010 Publishers, Rotterdam, 2002.
2. "Pasajes de arquitectura y crítica" aldizkaria, "Dosis de ciudad" deituriko 49. alea, América Ibérica, Madrid, 2003.
3. www.cie.nl
4. "Kop Van Zuid 2", 010 Publishers, Rotterdam, 1999.